i

| | |
|---|---|
| *TREBIÑUKO UDALETXEA /* AYUNTAMIENTO DE TREVIÑO | 945 36 00 18<br>945 36 00 88 |
| AUTOBUSES HNOS. ARRIAGA/ *AUTOBUSAK* (Vitoria-Gasteiz – Treviño - Bernedo) Gratuitos / Dohanekoak | 945 28 27 87<br>900 50 12 77 |
| TAXIAK / TAXIS Albaita / Albaina | 945 37 90 46<br>600 46 48 74 |

JAN DA LO / PARADA Y FONDA

| | |
|---|---|
| Bar Alonso (Albaita / Albaina) | 945 37 90 46 |
| Taberna Dulanto (Argote) | 945 36 00 58 |
| Bar Saseta (Saseta) | 945 40 32 97 |
| Bar Roa (Trebiñu / Treviño) | 945 36 00 08 |
| Bar Berna (Trebiñu / Treviño) | 945 36 00 98 |
| Bar Gasolinera (Trebiñu / Treviño) | 945 36 01 31 |
| Bar Uralde (Araiko / Araico) | 945 36 00 37 |
| Bar / Restaurante Ventas de Armentia Taberna / Jatetxea | 945 36 00 78 |
| Restaurante Pangua Jatetxea | 945 37 32 30 |
| Restaurante Burgueta Jatetxea | 945 37 32 32 |
| Restaurante Urgora Jatetxea (Torre) | 945 40 31 60 |
| Agroturismo Iñakiren Etxea Nekazal turismoa (Albaita / Albaina) | 945 37 90 54 |
| Albergue Imiruri Aterpetxea (Imiruri) | 945 27 18 33 |
| Casa Rural Obeko Etxea / Nekazal-etxea | 945 37 81 73<br>(616 69 08 42) |

Ayuntamiento de Condado de Treviño

Trebiñuko Konderriko Udala

# TREBIÑUko konderria
# Condado de TREVIÑO

*Trebiñuko konderria aspaldi-aspalditik zeharkatutako bidegurutzean dago kokatuta, eta altxor natural eta kultural ugari eskaintzen dizkie bisitariei.*



Situado en una encrucijada de caminos transitados desde tiempos remotos, el Condado de Treviño ofrece al visitante multitud de tesoros naturales y culturales.

## TREBIÑUko hiribildua

***Trebiñuko hiribildua konderriko burua da, eta Nafarroako Antso Jakitunak 1161ean sortu zuen. Kaleetan zehar osteratxoa egin besterik ez duzue, bertako eraikin adierazgarrienak ezagutzeko.***

***① San Pedro parrokia-eliza***

*Eraikinaren kanpoko eta barruko aldean, osagai nabarmenenak daude ikusgai:*

- *Arkiboltan, urteko hilabeteak daude irudikatuta, zodiakoko zeinuen eta nekazaritza-giroko eszenen bidez.*
- *Harrizko lanketa zoragarria XIII. mendekoa da, eta, bertan, Andre Maria eta Umea agertzen dira.*
- *Erretaula nagusia churriguereskoa da (XVIII. mendekoa).*

***② Manrique de Laratarren jauregia (udaletxea)***

*XVI. mendean, Najerako dukeak Trebiñuko kondeak zirela, jauregi handia eraiki zuten hiribilduaren erdi-erdian. Gaur egun, antzinako eraikinaren hegaletako bat dago zutik, eta, bertan, Trebiñuko Konderriko udaletxea dago. Manrique de Laratarren armarria plazan bertan dago ikusgai.*

***③ Armarridun jauregia***

*Eraikin dotoreenetakoa da, eta honako esaldi hau dago idatzita bi armarrietako batean: "DE RODAS VINE RODANDO Y CON SANGRE DERRAMADA A ROZAS HIZE DE NADA".*










***④ San Juan Bataiatzailearen baseliza***

*Gaur egungo baseliza antzinako parrokia erromanikoaren gainean eraiki zuten. Dena dela, antzinako parrokia 1251n donetsi zuten, eta, gaur egun, aztarna batzuk daude oraindik harlangaitzezko hormetan (zutabeak eta harlandu zaharrak).*

***⑤ Erdi Aroko arkitektura***

*Hiribilduan, Erdi Aroko zenbait etxe daude: lerrokatutako etxeak dira, aurrealde estua dute eta bat eta lau arteko solairuak dituzte. Etxe batzuetako ateburuetan, Daviden Gurutzearen grabatuak daude, hiribilduan bizitako juduen adierazgarri.*

## La villa de TREVIÑO

**La Villa de Treviño, cabeza del Condado, fue fundada en 1161 por Don Sancho el Sabio de Navarra. Os invitamos a un paseo por sus calles, para descubrir sus edificios más singulares.**

***① Iglesia Parroquial de San Pedro***

*Puedes buscar, en el exterior y en el interior del edificio, sus elementos más destacables:*

- *La arquivolta con la representación de los meses del año por medio de los signos del zodiaco y escenas rurales.*
- *La preciosa talla en piedra del siglo XIII de la Virgen Blanca con el Niño.*
- *El retablo mayor, de estilo churrigueresco (siglo XVIII).*

***② Palacio de los Manrique de Lara (Ayuntamiento)***

*En el siglo XVI, siendo Condes de Treviño los Duques de Nájera, construyeron un gran palacio en el corazón de la Villa. Hasta nuestros días ha llegado una de las alas del antiguo edificio, hoy Ayuntamiento del Condado de Treviño. El escudo de armas de los Manrique de Lara preside la plaza.*

***③ Palacio Blasonado***

*Uno de los edificios más señoriales que se conserva, y que ostenta en uno de sus dos escudo, el lema: "DE RODAS VINE RODANDO Y CON SÁNGRE DERRAMADA A ROZAS HIZE DE NADA".*







***④ Ermita de San Juan Bautista***

*La actual ermita se ha edificado sobre la antigua parroquia románica, consagrada en 1251 y de la que se conservan algunos restos (columnas y sillares antiguos) en los muros de mampostería.*

***⑤ Arquitectura medieval***

*La villa conserva varias viviendas de tipología medieval: casas alineadas, de estrecha fachada y de entre una y cuatro alturas. En los dinteles de algunas de estas casas se conservan grabados de la Cruz de David, testimonio de la presencia judía en la villa.*

## TREBIÑU naturala / TREVIÑO natural

*Trebiñuko konderria Arabako Lautadatik banatzen duten Gasteizko mendien eta Arabar Errioxako mugakide naturala den Kantabria mendizerraren artean dago kokatuta. Lurralde horretako paisaia oso ugaria denez, baso mediterraneoak daude magal eguzkitsuetan (arteak, karraskak eta erkametzak); eta ohiko baso atlantikoak, laiotzetan (pagoak, lizarrak, ezkiak, gorostiak, ezpelak eta haginak).*

*Gasteizko mendiak Gaztelako goi-lautada eta Nafarroako mendiak lotzen dituen fauna-igarobide garrantzitsua dira. Bertako baso eta amildegietan, orkatzak, basurdeak, azkonarrak eta azeriak bizi dira. Hegazti harrapariak jaun eta jabe dira konderriko zeruan. Ayuda ibaian, ordea, zenbait arrantza-esparru daude, eta, bertan, aingira, amuarrain arrunta, loina, barboa, errutilo hegats-gorria eta ibai-karramarroa harrapatzen dira.*

El Condado de Treviño se encuentra situado entre los Montes de Vitoria, que lo separan de la Llanada Alavesa, y la Sierra de Cantabria, que hace de frontera natural con La Rioja Alavesa. En este territorio, el paisaje es muy variado y podemos encontrar desde bosques de carácter mediterráneo en las laderas soleadas (encinas, carrascas y quejigos) hasta bosques típicamente atlánticos, que crecen en las umbrías (hayas, fresnos, tilos, acebos, bojs y tejos).

Los Montes de Vitoria constituyen un importante corredor faunístico que comunica la meseta castellana con las montañas navarras. En sus bosques y barrancos habitan corzos, jabalís, tejones y zorros. Las aves rapaces son las dueñas del cielo del Condado y el río Ayuda cuenta con varios cotos de pesca en los que puede capturarse anguila, trucha común, loina, barbo, bermejuela o chipa y cangrejo.

## *Kutxu* / Cucho

***① Arkitektura pintoreskoa***

*Kutxu herrixka harriz harri zaharberritu dute 25 urtean zehar, eta konderriko arkitektura multzo interesgarrienetakoa dago bertan.*

***② Landako Andre Mariaren baseliza***

*Antzinako baseliza erromanikoari dagokionez, XVI. mendeko atea eta gaur egungo hilerriaren inguruko hormak baino ez daude.*
*XIX. mendearen erdialdetik, Landako Andre Mariaren aldarea **Gurutze Santuaren Asmaketaren parrokia-elizan** dago ③.*













***④ Bainuetxe zaharra***

*Kutxuko bainuetxeko ostatua Ayuda ibaiko bazterretan jarri zuten, merkantzien eta bidaiarien joan-etorrien bila. Izan ere, XX. mendearen hasieran oso ospetsua izan zen, bertako ur kloruratu, sodiko eta sulfurosoei esker. 1954an, Sortze Garbiaren moja frantziskotarren egoitza bihurtu zen; eta 1981ean, adinekoentzako egoitza. Garai horretan, iturburua estali zuten, kiratsik ez egoteko.*

**① Arquitectura pintoresca**

La aldea de Cucho, que ha sido restaurada piedra a piedra durante 25 años, alberga uno de los conjuntos de arquitectura más interesantes del Condado.

**② Ermita de Nuestra Señora del Campo**

De esta antigua ermita románica sólo se conservan la puerta, del siglo XVI, y los muros, que rodean el actual cementerio.
Desde mediados del siglo XIX, el altar de la Virgen del Campo se encuentra en la **Iglesia parroquial de la Invención de la Santa Cruz ③.**

**④ Antiguo balneario**

La fonda y hospedería del Balneario de Cucho, que se ubicó a orillas del río Ayuda buscando el tránsito de mercancías y viajeros, fue famosa a principios del siglo XX gracias a sus aguas clorurado-sódicas-sulfurosas. En 1954 pasó a ser residencia de las Franciscanas de la Purísima Concepción y en 1981 se transformó en residencia de ancianos. Entonces fue tapiado el manantial, para evitar los malos olores.

***Lañun bertan, eremutarren bi multzo garrantzitsu daude, eta herrira sartzeko errepidearen albo bietan dago kokatuta.***
***Haitzulo artifizialak dira, eta, duela mila ta bostehun urtetik gora eremutarrak bizi ziren bertan.***

### *Las Gobas ①*
*Multzo honetan, antzinako tenpluen aztarnak, monjeen bizileku txikiak eta haitzean zulatutako hilobiak daude. Haitzulook animalien irudien grabatuz eta Goiz Erdi Aroko inskripzio irakurgaitzez beteta daude.*
*Herrian bertan eskatu daiteke haitzuloak babesten dituen hesia zabaltzeko giltza.*

### *Santorkaria ②*
*Multzo arranditsu honetan, luiziak daudenez, barruko alde handiena agerian dago. Antza denez, 1733. urtea baino lehen leku horretan zegoen "Santa Leocadia" baselizaren izena desitxuratzean sortu da gaur egungo toponimoa.*

### *Giza gazteluak ③*
*San Roke jaietan (abuztuak 15-16), prozesioa amaitutakoan, mutil gazteek "gaztelua" egiten dute. Hiru solairuko dorrea da, eta, bertan, bata bestearen sorbaldaren gainean igotzen dira. Hirugarren solairuan, mutiletako batek San Roke, Santa Marina eta apaiz jauna goraipatzen ditu, eta, ondoren, suziria jaurtitzen du.*


①

**El término de Laño alberga dos conjuntos eremíticos muy importantes, situados a uno y otro lado de la carretera de acceso al pueblo. Son cuevas artificiales que fueron habitadas por ermitaños hace más de mil quinientos años.**


①


②

### Las Gobas ①
En este conjunto se aprecian restos de antiguos templos, pequeños habitáculos para vivienda de los monjes y sepulturas excavadas en la roca. Estas cuevas son ricas en grabados de figuras de animales y en inscripciones altomedievales de difícil lectura. La llave para abrir la cerca que protege estas cuevas puede pedirse en el pueblo.


③

### Santorkaria ②
Este grandioso conjunto se encuentra afectado por desprendimientos, por lo que queda a la vista gran parte de su interior. Parece que el topónimo proviene de una deformación de "Santa Leocadia", una ermita que hubo en este lugar antes de 1733.

### Castillos humanos ③
Durante las fiestas de San Roque (15-16 de agosto), terminada la procesión, los mozos hacen "el castillo", una torre de tres pisos en la que unos suben a hombros de otros. En el tercer piso, uno de ellos vitorea a San Roque, a Santa Marina y al señor cura, y lanza un cohete.

***Saseta eskualdeko herrixka zaharrenetakoa da. Horrez gain, Ebroko bailara eta Kantauriko kostaldea lotzen zituen errege-bidea bertatik sartzen zen konderrira. Eskualdean, "Arraina eta ardoa" bidea esaten diote ibilbide horri.***

### *Ayuda ibaiko haitzartea ①*
*Saseta eta Okina artean, ibaiak arroila estua eratzen du Gasteizko mendietako material tertziarioetan. Oso eremu natural interesgarria da, eta, bertan, zenbait eratako basoak daude; esate baterako, artadiak, erkameztiak, pagadiak eta erriberako basoak.*

### *San Esteban parrokia ④*
*XIII. mendeko jatorrizko eraikineko zenbait osagai erromaniko ditu oraindik, eta gainerakoak XV-XVI. mendekoak dira, ordea. Nekazaritza-giroko dorrea nabarmentzen da, eta erdi-puntuko lau bao ditu kanpaien gorputzean.*

### *Ur-jauziak ② eta errota ③*
*Bere ibilbideko zenbait gunetan, Ayuda ibaiak ur-jauziak sortzen ditu. Euren indarra ustiatzeko, ur-errotak jarri zituzten erriberan zehar. Herritik bertatik ostera-txoa eginez gero, eremu eder-ederrean kokatutako errotara iritsiko gara.*


①


②


③

**Sáseta es una de las aldeas más antiguas de la comarca. Es también la entrada en el Condado del Camino Real que comunicaba los valles del Ebro con la costa cantábrica, ruta conocida en la zona como "Camino del Vino y el Pescado".**


④

### Desfiladero del río Ayuda ①
Entre las poblaciones de Sáseta y Oquina, el río talla una estrecha garganta en los materiales terciarios de los Montes de Vitoria. Se trata de un espacio natural de gran interés en el que conviven distintos tipos de bosque como carrascales, quejigales, hayedos y bosques de ribera.

### Parroquia de San Esteban ④
Conserva algunos elementos románicos de la primitiva construcción del siglo XIII, el resto es de los siglos XV-XVI. Destaca su torre de tipo rural, con cuatro vanos de medio punto en el cuerpo de las campanas.

### Cascadas ② y molino ③
En numerosos puntos de su recorrido, el río Ayuda da lugar a cascadas cuya fuerza ha sido aprovechada mediante la instalación de molinos hidráulicos a lo largo de su ribera. Un corto paseo desde el pueblo nos acercará a uno de estos molinos, situado en un paraje de gran belleza.

# Argote

# Argote

**Argote herriaren izena ez da ezertxo ere aldatu historian zehar, 1110. urtetik aurrera, behintzat. Izan ere, urte horretan lehen aldiz agertzen da Nafarroako Leireko monasterioan dagoen agiri batean. Izena ar- (harri-) eta gorte (eskorta, borda) hitzen arteko elkarketatik dator, nonbait.**

### Jaskundeko Andre Mariaren parrokia ①

*Eraikin erromanikoa da. Sarrerako arku handia erdi-puntukoa da②, eta aurrealde erromaniko berantiarra du. Dorre barrokoa nabarmen-tzen da ③. Izan ere, oraindik, dorrea eraikitzeko planoak tenpluko zolako harlauzetan daude ikusgai.*

*Era berean, XIII. mendeko bataiarri erromanikoa ere badago bertan ④*

### San Antonio Paduakoaren kofradia ⑤

*Herri desberdinetako biztanleek osatzen zuten kofradia. Gaur egun prozesioa egiten jarraitzen dute eta San Antonio egunetik (ekainaren 13a) hurbilen dagoen igandean, santuaren irudia kalez kale eramaten dute Argoten.*

### Ayuda ibaiaren ertzean

*Trebiñoko herri gehienak bezala, Argote Ayuda ibaiaren arroan dago kokatuta, eta ur-errota ⑦ zaharraren parean ibaia zeharka-tzen duen arku bakarreko harrizko zubi ederra dauka. ⑥*


1

2

3

4

5

6

**El nombre del pueblo de Argote ha permanecido inalterado a lo largo de la historia, al menos desde el año 1110, en que figura por primera vez en un documento que se conserva en el Monasterio de Leire, en Navarra. Parece ser que el nombre viene de *ar-* (harri-piedra) y de *gorte*, corral o borda.**

### Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción ①

Edificio románico, aunque su torre es posterior, de estilo barroco ②. Conserva el arco de acceso, de medio punto ③ y la portada, románica avanzada. Los planos de construcción de la torre aún pueden verse trazados en las losas del pavimento del templo. En su interior alberga una pila bautismal románica, del siglo XIII ④.

### Cofradía de San Antonio de Padua ⑤

Estuvo formada por gente de distintos pueblos, y hoy en día sigue haciendo procesión con la imagen del santo por las calles de Argote el domingo más cercano al día de San Antonio (13 de junio).

### A orillas del Ayuda

Al igual que la mayoría de los pueblos treviñeses, Argote se sitúa en la cuenca del río Ayuda, y cuenta con un bello puente de piedra de un sólo arco⑥ que lo atraviesa a la altura de un viejo molino hidráulico.

# Albaita

# Albaina

### ① San Migel parrokia

*Erdi-puntuko lau arku dituen arkupea XVIII. mendekoa da eta portada errenazentista, XVI. mendekoa. Kanpai-horma ezin ederragoa da.*

### ② Asmakizun hidraulikoak

*Albaitak lau errota ditu: bat herriko erdialdean dago; eta beste hirurak, elizaren atzean, herria zeharkatu eta ura Barrundia ibaitik hartzen duen ubide artifizialean zehar.*

### ③ Granadoko Andre Mariaren baseliza

*XIII. mendeko eraikina erromaniko berantiarra da. Herriko hego-mendebaldean dago kokatuta, 2 kilometrora, eta herriaren ikuspegia zoragarria da bertatik. Granado herriko parrokia templua izan zen duela zenbait mende desagertu arte.*

### Bazenekien...

*...haitzulo artifizial asko eta asko egon zirela Albaitako jurisdikzioan? Hala ere, Aita Barandiaranek bertan aurkitutako grabatuen azalpenak eta kopiak baino ez daude gaur egun.*


①

②

③

### ① Parroquia de San Miguel

Tiene un pórtico del siglo XVIII con cuatro arcos de medio punto y una portada renacentista del siglo XVI. Destaca, por su belleza, la espadaña renacentista.

### ② Ingenios hidráulicos

Albaina cuenta con cuatro molinos: uno dentro del núcleo urbano y los otros tres detrás de la iglesia, a lo largo del canal artificial que cruza el pueblo y que toma el agua del río Barrundia.

**③ Ermita de Nuestra Señora de Granado** Edificio de estilo románico avanzado del siglo XIII, situado a 2 km. al suroeste del pueblo y con magníficas vistas sobre él. Fue templo parroquial de Granado, población que se levantaba en torno a ella y que desapareció hace varios siglos.

### ¿Sabías que....

...hubo en la jurisdicción de Albaina numerosas cuevas artificiales? De ellas sólo se conservan las descripciones y reproducciones de los grabados encontrados por Aita Barandiaran.

## *Bidegurutzea*

*Antzinan, bi ibilbide nagusi gurutzatzen ziren Ayuda ibaiaren alboan, Ventas de Armentiako gaur egungo herri-gunearen parean, hain zuzen ere. Batak Bordele-Astorga galtzada eta Kanpezuko bailara lotzen zituena, ibaiko ibilguan zehar. Bestea, ordea, Gasteizko mendatetik zetorren, Herrerako mendatea zeharkatu eta Arabar Errioxara iristen zena.*

*XVIII. mendearen amaieran, Gasteiz eta Herrera arteko bidea erregebide bihurtu zen. Izan ere, garai horretan, muino baten gainean kokatutako Armentiak "Las Ventas" auzoa sortzeko asmoa izan zuen, bideak ibaia zeharkatu eta beste ibilbide zaharrarekin bat egiten zuen lekuan. Horrela, bada, XIX. mendearen hasieran, Armentian "elkarren ondoan kokatutako eta zumardi zoragarriaz edertutako hiru benta" zeudela aipatzen zen. Bentok ostatua eta janaria eskaintzen zizkieten bide horiek zeharkatzen zituzten bidaiariei.*



*Bidegurutzea (Ventas de Armentia-Pedruzo). Egilea: E. Guinea, 1915*
Cruce de caminos (Ventas de Armentia-Pedruzo). Autor E. Guinea, 1915

## Cruce de caminos

Antiguamente, se cruzaban dos grandes rutas junto al río Ayuda, a la altura del actual núcleo de Ventas de Armentia. Una era la que unía la calzada Burdeos-Astorga con el valle de Campezo, siguiendo el curso del río. La otra, la que procedente del puerto de Vitoria y por el puerto de Herrera, llegaba a la Rioja Alavesa.

A finales del siglo XVIII, el camino entre Vitoria y Herrera se convirtió en Camino Real y fue entonces cuando Armentia, situada en un altozano, proyectó el barrio de "Las Ventas" en el lugar donde el camino cruzaba el río y coincidía con la otra vieja ruta.

Así, a principios del siglo XIX se citan en Armentia *"tres ventas contiguas unas de otras, hermoseadas con una deliciosa alameda"* dedicadas a cubrir las necesidades de alojamiento y comida de las gentes que recorrían estos caminos.

**quitectura pintoresca (Cucho)**

*estacan el conjunto de arqui-ctura cuidadosamente restau-da y el antiguo balneario de guas clorurado-sódicas-sulfuro-s, actualmente residencia de ncianos.*

**Sortze Garbiaren baseliza (San Vicentejo)**

Konderriko eraikin garrantzitsuena da. XII edo XIII.mendekoa eta erromanikoa da. 1963an zaharberritu zuten eta bertan absidea nabarmentzen da.



**Ermita de la Concepción (San Vicentejo)**

Se trata del edificio más importante del Condado, del siglo XII ó XIII y estilo románico. Fue restaurada en 1963 y en ella destaca el ábside.




**Ayuda ibaiko haitzartea**

*Eremu natural interesgarria da. Izan ere, Ayuda ibaiak Gasteizko mendietako material ter-tziarioetan irekitako arroila estua da. Landaretzari dagokionez, arteak, pagoak, ezpelak, ipuruak, erkametzak eta haginak daude bertan. Bestetik, hegazti harrapariak dira bertako fauna bereizgarria.*

**Desfiladero del Rio Ayuda**

Espacio natural de gran interés consistente en una estrecha garganta abierta por el río Ayuda en los materiales terciarios de los Montes de Vitoria. Entre la vegetación que podemos encontrar se incluyen encinas, hayas, boj, enebro, quejigo y tejo. La fauna más característica son las aves rapaces.

**Obekuri eta Baxauriko basoak**

*Bi herriok nekazaritza-giroko arkitekturako eredu ederrak dira, eta pagoz, haritzez, gorostiz eta ipuruz osatutako basoak ezaugarri bereizgarri dituen eremuan daude kokatuta. Euren alboan, Izki mendiak daude, gaur egun Arabakoa den Parke Naturala, hain zuzen ere.*

**Bosques de Obécuri y Bajauri**

Estos dos pueblos, con bellos ejemplos de arquitectura rural, están en una zona caracterizada por los bosques de haya y roble, además de acebo y enebro. Junto a ellos encontramos los Montes de Izki, actual Parque Natural perteneciente a Álava.

**multzoak**

*ren bizileku tifizial asko ean zulatu-rfoetan utzi n arrastoa.*



**Conjuntos rupestres de eremitorios**

Existen numerosas cuevas artificiales que dieron cobijo a los eremitas medievales de la zona, que dejaron su huella en las sepulturas antropomorfas excavadas en la roca.

## TREBIÑU artistikoa / TREVIÑO artístico

*Hilarri erromatarren aztarnak daude eliza batzuetako hormetan (Saraso, San Martin Galbarin). Hain zuzen ere, Ayuda ibaiko ibilguan zehar, Bordele-Astorga galtzada erromatarra eta Kanpezuko bailara lotzen zituen ibilbide zaharraren lekukoak dira. Goiz Erdi Aroan, lurraldeko lehenengo erkidego kristauak haitzean zulatutako haitzulo artifizialetan finkatu ziren. Gaur egun, ehunetik gora zulo dira kokaleku horien adierazgarri (Albaita, Lañu).*

*Konderri osoan, Erdi Aroko monumentu ugari daude, eta XIII. mendetik aurrera eraiki zituzten. Elizak eta baselizak dira altxor nabarmenenak, eta gotiko hasiberriaren ezaugarriak dituen estilo erromanikoa da nagusi.*

Los restos de lápidas romanas, que se conservan en los muros de algunas iglesias (Saraso, San Martin Galvarin), dan testimonio de una antigua ruta que unía la calzada romana Burdeos-Astorga con el Valle de Campezo siguiendo el curso del río Ayuda. Durante la Alta Edad Media, las primeras comunidades cristianas del territorio se establecen en cuevas excavadas artificialmente en la roca: testigos de esta ocupación, han llegado hasta nuestros días más de cien de estas oquedades (Albaina, Laño).

Todo el Condado es rico en monumentos medievales levantados a partir del siglo XIII. Las iglesias y ermitas son sus tesoros más destacables, predominando el estilo románico con características de un incipiente gótico.

## Konderriko bitxiala / La joya del Condado

***Sortze Garbiaren baseliza erromanikoa XIII. mendearen hasieran edo XII. mendearen amaieran eraiki zuten, eta 1963an zaharberritu zuten. Era berean, kokagune duen herriaren izena ere ematen diote (San Vicentejo). Konderri osoko eraikin ederrenetakoa da, eta eskualde osoko Erdi Aroko eredu onena ere bai.***

**La ermita románica de la Purísima Concepción, más conocida con el nombre del pueblo en que se encuentra (San Vicentejo), fuè construida a principios del siglo XIII o finales del XII y restaurada en 1963. Es uno de los edificios más bellos de todo el Condado y el mejor ejemplo de arte medieval de toda la región.**



## Trebiñuko San Formerio / San Formerio de Treviño

***Trebiñuko Konderriko zaindaria den San Formerioren baseliza 752 metrora dago kokatuta izen bereko mendizerran. Bertan, zelai berdeak eta karraskaz zein erkametzez osatutako basoak tartekatzen dira.***

**La ermita de San Formerio, patrón del Condado de Treviño, se encuentra a 752 m. de altitud en la sierra del mismo nombre, donde las verdes campas alternan con bosques de encina-carrasca y quejigo.**



### *Historiadun lekua*

*Santutegiko ekialdean, hilobi antropomorfoak daude. Sortaldera begira daude, eta haitzean daude hondeatuta. Seguruenik, hilerri erromaniko batekoak edo erlijiosoen komentu batekoak izan ziren.*

### Un lugar con historia

Al este del santuario se conservan sepulturas antropomorfas orientadas hacia levante y excavadas en la roca, que pertenecieron probablemente a un cementerio románico o a un monasterio de religiosos.

### *Erromeriak eta erlikiak*

*Irailaren 25a santuaren eguna denez, egun horretatik hurbilen dagoen asteburuan erromeria egiten da bertan, eta konderriko eta eskualdeko jendea joaten da bertara. Egun horretan, prozesioa egiten da santuaren buruarekin, meza nagusia egiten da, eta, ondoren, jendea kaperatik igarotzen da mausoleoa ikusteko. Izan ere, XVI. mendeko harrizko tenplete gotiko-errenazentista da.*
*La Divisa, San Formerio baseliza kofradia, da erromeria antolatzeko ardura hartzen duena. Kofradia, konderriko eta Arabako zenbait herriek osatzen dute.*



*San Formerioren burua*
Cabeza de San Formerio

### Romerías y reliquias

El fin de semana más cercano al 25 de septiembre, día del santo, se celebra una romería a la que acuden gentes de todo el Condado y la comarca. Ese día, se hace procesión con la cabeza del santo, se celebra la Santa Misa y, después, la gente pasa por la capilla donde se encuentra el mausoleo, un templete de piedra de estilo gótico-renacentista del siglo XVI.
La cofradía de la ermita de San Formerio, La Divisa, es la encargada de organizar la romería. Esta cofradía la integran pueblos del Condado y pueblos de Alava.




## Arkitektura pintoreskoa (Kutxu)

*Bertan, arreta handiz zahaberritutako multzoa eta ur klorurato-sodiko-sulfurosoen bainuetxea (egun adinekoentzako egoitza) nabarmentzen dira.*

## Arquitectura pintoresca (Cucho)

*Destacan el conjunto de arquitectura cuidadosamente restaurada y el antiguo balneario de aguas clorurado-sódicas-sulfurosas, actualmente residencia de ancianos.*

## Sortze Garbiaren baseliza (San Vicentejo)

Konderriko eraikin garrantzitsuena da. XII. edo XIII. mendekoa eta erromanikoa da. 1963an zaharberritu zuten eta bertan absidea nabarmentzen da.

## Ermita de la Concepción (San Vicentejo)

Se trata del edificio más importante del Condado, del siglo XII ó XIII y estilo románico. Fue restaurada en 1963 y en ella destaca el ábside.

## Ayuda ibaiko haitzartea

*Eremu natural interesgarria da. Izan ere, Ayuda ibaiak Gasteizko mendietako material ter-tziarioetan irekitako arroila estua da. Landaretzari dagokionez, arteak, pagoak, ezpelak, ipuruak, erkametzak eta haginak daude bertan. Bestetik, hegazti harrapariak dira bertako fauna bereizgarria.*

## Desfiladero del Río Ayuda

Espacio natural de gran interés consistente en una estrecha garganta abierta por el río Ayuda en los materiales terciarios de los Montes de Vitoria. Entre la vegetación que podemos encontrar se incluyen encinas, hayas, boj, enebro, quejigo y tejo. La fauna más característica son las aves rapaces.

## San Formerio

Konderriko zaindariaren omenezko baseliza eta gotorlekua da, eta izen bereko mendiko gailurrean dago kokatuta. Bertatik, ikuspegi zoragarria dago ikusgai. Erdi Aroko gotorlekuaren aztarnak eta haitzean zulatutako zenbait hilobi antropomorfo daude.

*Ermita y fortaleza dedicada al Patrono del Condado, enclavada en la cima del monte del mismo nombre, desde donde se divisa una espléndida panorámica de gran parte del Condado. Conserva restos medievales de su carácter castrense y varias sepulturas antropomorfas excavadas en la roca.*

## Obekuri eta Baxauriko basoak

*Bi herriok nekazaritza-giroko arkitekturako eredu ederrak dira, eta pagoz, haritzez, gorostiz eta ipuruz osatutako basoak ezaugarri bereizgarri dituen eremuan daude kokatuta. Euren alboan, Izki mendiak daude, gaur egun Arabakoa den Parke Naturala, hain zuzen ere.*

## Bosques de Obécuri y Bajauri

Estos dos pueblos, con bellos ejemplos de arquitectura rural, están en una zona caracterizada por los bosques de haya y roble, además de acebo y enebro. Junto a ellos encontramos los Montes de Izki, actual Parque Natural perteneciente a Álava.

## IKURRAK / LEYENDA

| IKURRAK | LEYENDA |
| --- | --- |
| GR 38 "Ardoaren eta arrainaren ibilbidea" | GR 38 "Ruta del Vino y el Pescado" |
| Errepideak | Carreteras |
| Pistak eta bideak | Pistas y caminos |
| Erriberako basoa | Bosque de ribera |
| Karraskadia | Carrascal |
| Pagadia | Hayedo |
| Erkameztia | Quejigal |
| Ikuspegi panoramikoa | Vista Panorámica |
| Haitzulo zenobitikoa | Cueva cenobítica |
| Errota | Molino |
| Eliza | Iglesia |
| Baseliza | Ermita |
| Jatetxea-Taberna | Restaurante-Bar |
| Ostatua | Alojamiento |
| Gasolindegia | Gasolinera |
| Golf zelaia | Campo de golf |

## Trebiñuko hiribildua

*Tontorrean gaztelu arranditsua duen muinoko hegoaldeko magalean dago kokatuta, eta San Pedro parrokia-elizako dorre barrokoa nabarmentzen da. Erdi Aroan, bide eta merkantzien bidegurutzea izan zenez, aljama judu aberatsa finkatu zen bertan.*



## Villa de Treviño

Asentada en la falda sur de un cerro en cuya cima se alzaba un poderoso castillo, destaca la torre barroca de su iglesia parroquial de San Pedro. Fue cruce de caminos y mercancías durante la Edad Media, lo que favoreció el asentamiento de una floreciente aljama judía.

## Ermitategietako labar-multzoak

*Erdi Aroko eremutarren bizileku izan ziren haitzulo artifizial asko daude. Izan ere, haitzean zulatutako hilobi antropomorfoetan utzi zuten euren arrastoa.*



## Conjuntos rupestres de eremitorios

Existen numerosas cuevas artificiales que dieron cobijo a los eremitas medievales de la zona, que dejaron su huella en las sepulturas antropomorfas excavadas en la roca.